

## GURASOAREN ZIGORRA.<sup>1</sup>



«Onra zazu gurasoa.»

### I.

¡Zér bizitza gozatsua eta garbiya, Pello Egibar-koarena!

Izarraitz-ko basoetan dagoen pakearen eran gozatsua, eta Urola ibaiyaren úrak, eta udaberriko egun eder batean Zeru-urdiña dan beziñ garbiya.

Goizean goizetik irtetzen zan lanera bere soroetara, bere beko-kiko izerdiyarekin lurra busti eta ongarritzera: eta eguerdi-arratsetan echeratzen zanean, ¡nork esan nolako poza artzen zuen, bere biotzeko aurchoak irtetzen zitayozkanean atarira, eta batek laztan eta besteak musu, inguratzen zutenean, chorikuméak, kabiyan beren ama inguratzen duten moduan!

Pelloren emazte Mari-Jošepa zan emakume bat leyalá, chukuna, langillea, errukitsua, ona itz batean. Ala ¿nola eche ura etzan izango Paradisu baten irudi egiazko ederra?

Eskale edo beartsu bat iristen bazan Egibar-ko atera, etzan itzuliko arto-zati bat, urdai piška bat, edo beste zerbait echeari zerraikiona berekiñ eraman gabe.

Auzoetako gizonen bat gaišorik gelditzen zanean oyeán, etzan izango azkena Pello, gizon gaišoaren lúrrak maneatzera joaten.

Izanik zorientasuna, bakoitza bere izatearekin erakidatu edo kontentatzea, ¡nón arkitu, mundu ontan, Pello Egibar-koarena baño zorientasun aundiyagorik!

Añ bizi zan alegere eta atsegiñ, ezik, bere auzoko eta adiskidéak esaten zioten: «Pello doatsua».

(1) Leyenda premiada con UN EJEMPLAR DEL DICCIONARIO DE AIZKIBEL en los Juegos florares celebrados en esta Ciudad en 1884. (V. pág. 146).

Eta berák, ala deitzen ziotenean, farrez-farrez eranzuten zien: «Nola egongo ez naiz pozez, baldin, Jaunari eskérrak, badaukat nere bazterrean uzta ona, eta nere biyotz-biyotzeko puska maitéak azitzen badijoazkit liraiñ ta mardul, Zeruko intzak bustitzen dituen landarechoak bezela?

Bazijoazen urtéak aurrera eta aurrera, beren joaira boaldatiyan,<sup>1</sup> ala nola dijoazen ibai bateko úrak béera ta béera, eta Pellok ikusten zituen bere seméak, eta batez ere, Pachi, zarrena, azitzen zijoazela, eta, berekiko, pensatzen zuen:

—¿Zér zartzaro gozoa eta ederra izan bear dedan, nere Pachi gizon egin, ta artzen duenean bere gañ echeko kontua! ¿Zér atsegiñez egongo naizen nere billobachoak belaunetan arturik, berai nik chikitan ikasitako ipuiyak esaten, eta kontaktzen nere gazte-denborako gertakiyak! Pensatze utsarekin, pozez betetzen naiz, eta nere seme alábak azitzeak ematen didan lanari, ariña derizkiot.—

Ala pensatzen zuen Pello gizagajoak, oroitu gabe, nonbait, gizonaren pentsakizúnak dirala, aizéak daramazkien udazkeneko osto igárrak, eta eguzkiyaren igesi dijoazen arratseko laño mé-méak diran modukóak; berenez ezerézak, eta danik eta gauzik utsenarekin desegintzen dirának.

## II.

¿Zér gertatzen da Egibar-ko echean?

Pello gizagajoa ikusten da triste, naigabetsu: oraindik-orain, bere illadatsa<sup>2</sup> beltzik zeukan, eta gaur penaren indarrez inólaz ere, bere buruko ille guztiyak zuriyak dira, Arauntzamendiko arkumechóak, eta Izarraitz-ko tontórrak, neguan elurrez estaltzean, diran bezela.

Bere begiratzea ez da, len bezela, alegerea, poztia; baizik kupi-garriya, samintsua.

Bere matrallan ikusten dira zimur asko, adierazten dutela, Pellorean biyotzak izan dituela pena ugariyak, eta bere begiyetik išuri dirala malko gori mintsuak.

Badator udaberriya..... Izarraitz-ko elúrrak urtu-ta, agertzen da mendi goitsua jazkai berdeakin apaindurik; Arauntza-mendira itzultzen dira, neguan elurragandik aldentzeagatik, belar guriya billatzera itsas-aldera joan ziran artaldéak; Urolaren ertzeko zuaitz galántak ikusten dira ostoz ta kabiz beteak; zelaiyak, lorez estaldúak; choriyak, beti kantari, beren chirulirúak nasten diralarik

(1) Boaldatiya=Impetuoso.—(2) Illadatsa=Cabellera.

Urolaren murmur leunakin, eta egiten dutela guztiyen artean batots<sup>1</sup> choragarriya.....

Baña Pello añ triste dago, nola udazkenak, bere berunezko mantua Izarraitzen gañean zabaldu, eta basóak eta chárak, arboletatik eramantako osto igarrez betetzen dituenean.

¡Zéñ aundiya dan Pelloren tristura! Eziñ kendu dio tristura ori, udaberriyaren edertasunak, ez eta ere len ainbeste poz ematen zion uzta ugariyak.

Bere poz bakarra da otoitza, arima gogaberatiyen jakiya.

Bere biyotza jausbetitzen<sup>2</sup> danean, bere gorputzak, ere, biyotza-  
ren jausbetitze orrekin, indárrak oso galtzen dituenean, eta erortzen zayozkanean beso erbálak, zarikaren<sup>3</sup> adárrak, enborraren indarri-  
kezagatik erortzen diran moduan, Jaungoikoari deitzen dio barru-  
barrutik, laguntza eskatuaz; eta Jaungoikoak laguntzen dio.

¿Nola bizi Pello modu orretan, goitik, gauz on guztiyen iturbu-  
rutik datorik laguntza ez baleuka?... Bere indar utsakin, ekaitz  
borchariyari<sup>4</sup> zemuitu<sup>5</sup> bear dion zume chiki argal baten erara.

Eche barruan ez da ikusten, len ikusten zan batasun ederra. Len  
ibai garbi, urdiñ, ederra zana, da gaur ujolde arre, zikiñ nastua.

Esan liteke, *gaitzaren izpirituak* aztindu dituela bere egóak  
eche onen gañean, eta bere asnase gaizkiñarekin dana bete duela.

¿Zér da, bada, Egibarren?

¿Zér izango da?... Gauz asko. Mari-Joşepa gaişoa ill zan urte  
batzúek dirala, eta ikusirik Pellok, echea moldatzeko emakume  
baten bear zirala, ezkondu zuen Pachi, Oyarzabal-ko Iñasirekiñ;  
beste seme alába guztiyak, ere, ezkondu edo beren bizimodua artu  
zuten; eta Pachiri eta bere emazteari eman zizkien aítak echeko es-  
kubideak, eta bere denboran egin izan zituen diru banákak.

Gero ¿zér gertatu da?... Pachik eta Iñasik, aita zarra, bear  
duten, eta berak merezi duen bezela, ez onratzea; berá baztertutik  
uztea; gauza guztiyetan azkenerako lagatzea, esaten dutelarik, lanik  
batere egiten ez duen batek merezi baño geyago egiten diotela.

Noizik beñ zerbait itzegiten badiote, itzegiten diote zakarkiro;  
jaten ematen diotena, ematen diote gogo charretik; noizbait begira-  
tzen diotenean, begiratzen diote bekozko illunarekin.

¡Norá iristen dan gizona, bere gurasoari zor dion begirunea gal-  
tzen dionean!

Bakar-bakarrik Pachiren aurchóak, lurreko aingerúak pallaka-

(1) Batotsa=Unisono.—(2) Jausbetitu=Desfallecer.—(3) Zarika=Sáuce.—

(4) Borchariya=Violento.—(5) Zemuitu=Resistir.

tzen dute aiton doakabea, gaitzikezak<sup>1</sup> berekin duen gozotasun eta maitagoarekin.

Ala bizi da Pello gízagajoa. Sukalde bazterrean eseririk, an dago beti, len zuen doatsutasunean pensatzen, eta zoriontasun artaz, eta oraiñ daukan bizimodu errukarriyaz gogoratzean, geyago eta geyago samintzen.

Ala, geroago ta dago indargabetuagoa. Bere gorputza, len zuzena eta liraiña, oso makurtu da, urakan gogorak bere bultzada izugarriyarekin arbola bat makurtzen duen antzera. ¡Beti makilla bat berekin eraman bear du, ongi ibilliko bada, len auntz baten leyan arkaitzak bera saltatuko zitekean Pello Egibar-koak!

¡Zoriyaren birakortasuna,<sup>2</sup> eta denbora batzuetatik bestéetara dagoen banaita!<sup>3</sup>

## II.

¡Gauza arrigarriya!

Urte batzuek igaro dira, Pachi, Pelloren semea ezkondu zan ezkerro, eta aita, len bezela, sartzen joan bearrean, gaztetu dala dirudi bi edo iru urtez onontzik.

Bere matrallak zuri-gorritu dira berriro, bere óñak arindu dira; ez daude len beziñ lokatúak:<sup>4</sup> bere begiyak alaitu dira: bere gorputza, zerbait indartu da.

Beregan gertatu dala dirudi. negu beltza joan, ta bere ondoren udaberri loretsua datorrenean, Sortitzagan gertatzen dana.

¿Nola ori?... ¿Jaungoikoak ezagutu erazi dio Pachiri, bere aitari egin dion gaitza?... Ez; beintzat Pachik, bere biyotz-barruan, ez du damutasunik sentitzen.

¿Zér ote da bada?.....

Pellok, ikusirik zijoan moduan jarraitu bear bazuen, miñaren-miñez laster ill bear zuela, eta ezaguturik, dana zala, bere semearen eskuetan laga zuelako echean zan guztiya, joan zitzayon bere adiskide mami bati, eta esan zion:

—Joşe Mari, chikitatik adiskide izan geran ezkerro, ez det uste ukatuko didazunik eskatzera noakizun mesedea: ¿emango aldidazu urre-pilla bat ordu batzuetako bakarrik?... laster biurtuko dizut guztiya.—

—Bai, Pello, bai: ori eta nai dezun dana eskatu zadazu—esan zion Joşe Marik, eta ekarri zion, bereala, urre-diru pilla bat.

(1) Gaitzikeza=La inocencia.—(2) Birakortasuna=Volubilidad.—(3) Banaita=Diferencia.—(4) Lokatua=Torpe.

Artu zuen Pellok, joan zan echera, eta sartu zan bere gelan. Bere semea eta erraña echean zeudela ezagutu zuenean, asi zan bere diruak kontatzen kucha baten gañean, soñu aundiya egiñaz.

Etorri ziran gelako atera Pachi eta bere emaztea, eta giltzaren zirikatetik begiratu eta ikusi zutenean, aitak nola kontatzen zuen dirua kucharen gañean, andik aldendurik, elkarri esan zioten:

—¿Badakizu, oraindik gure aitak diru asko daukala?—

Egun ura ezkerro, bizimodu berri bat izan zuen Pellok. Semea eta erraña elkarren leyan zebiltzan, aita zarrari kontu egin nairik. Gauza guztietan jartzen zuten lenbiziko lekuan: sarritan itzegiten zioten, eta beti emeki,<sup>1</sup> eta begirun aundiarekin: alegiña guztiya egiten zuten aur chikiak ibilli zitezen aitonarekin jostatzen, eta berari fèstak egiten: belar piska bat artzen bazuen, ere, abereai jaten emateko,—laga beza—esaten zioten—ez beza lanik egiñ; eñeri bedi; emen gaude gu, gazteak, orretarako eta beste bear diran lának egiteko; naikoa egin du berorrek bere denboran—auzoko edo ezagunen batekin mintzatzen ziranean Pelloren gañean, dana zan aita goratunaiya, lén azpiratu-naiya zan bezela.

Iñoiz edo berriz, aita echetik kanpoan zanean, joaten ziran bere gelara, kuchan zenbat diru zeukan jakiteagatik; baña beti arkitzen zuten ichiya, eta giltzik gabe.

Ala esaten zuten berekiko:

—Pallakatu dezagun gure aita, pensatu dezan lén egiten genio-nagatik damutu-ta gaudela, eta ala, bigar edo etzi iltzen danean, guretzat izango dira bere diru dának.—

Ala bear, ta noizbait irichi zitzayon Pellori eriotzako ordua, eta ill zan bere seme eta billobachóen erdiyan, gizon zuzenak iltzen diran moduan, au da loák artu zuen gizonen besoetan, aingeruen besoetan Zeruan esnatzeko.

Pello ill zanean, negar eta auben<sup>2</sup> asko egin zuten Pachik eta Iñasik, baña negar ta auben malko gabekóak, biyotzetik jayotzen etzirának.

Artu zuten, aitak gorderik zeukan giltza, idiki zuten kucha, baña etzuten ezer arkitu. Orduan, idiki zuten barru-barruan zegoen kuchatilla, eta an arkitu zuten zigor bat paper batekin. paper ontan esaten zala:

—*Lagatzen det zigor au, berarekin bizkarra aztintzeko, bérak gai diran artean, echeko eskubidéak besteri ematen diozkatena.*—

Aditzeko belarririk duenak, aditu eta ikasi dezala.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) Emeki=Suavemente.—(2) Aubena=Llanto.